


ZATIKIAK BANAKETA GISA

Zatikia banaketak egiteko

4 lagunek 3 pizza dituzte afaltzeko, eta zati berdinetan banatu nahi dituzte. Pizzaren zer zati dagokio lagun bakoitzari?

3 : 4 zatiketa zehatza ez denez, hau egingo dute:

1. Pizza bakoitza 4 zati berdinetan zatituko dute; hau da, laurdenetan. Guztira, 12 laurden daude.




2. 12 laurdenak 4ren artean banatuko dituzte.

$$12 \text{ laurden} : 4 = 3 \text{ laurden} \Rightarrow \frac{3}{4}$$





Lagun bakoitzari pizzaren $\frac{3}{4}$ dagokio.



1. ARIKETA: (Begiratu goiko eredua)

Karlosek, Martak, Ibanek eta Kristinak hiru txokolatina banatu nahi dituzte lauren artean, zati berdina eginez. Txokolatinaren zer zati hartuko du bakoitzak?



- Txokolatinaren $\frac{3}{4}$ hartuko du bakoitzak.

2. ARIKETA:

Laranja-kopuru jakin bat banatu nahi dugu bost pertsonaren artean, zati berdinetan. Pertsona bakoitzak laranja $\frac{3}{5}$ hartu behar badu, zenbat laranja banatu beharko ditugu?

- Laranja banatu behar ditugu.

3. ARIKETA:

Unai, bere urtebetetze-egunean, bi tarta banatu zituen gonbidatuen artean, zati berdina eginez. Bakoitzak tartaren $\frac{2}{6}$ hartu zuen. Zenbat pertsona zeuden urtebetetzea ospatzen?

- Pertsona zeuden urtebetetzean.